

ZERGATIK BIZI DA BASOAN TXANOGORRITXUREN AMONA?

Enkarni Genua

Irud: Jon Zabaleta

Erein, 2006

46 orrialde

AMONAREN BELDURRA

Enkarni Genuaren liburu honen paratestuei erreparatuta (izenburua, saila, irudiak,...) informazio asko izan dezakegu obra honi buruz. Antzerki lan bat da, 7-10 urte bitartekoentzat -argitaletxearen arabera-, Jon Zabaletaren irudi koloretsu eta biziakin apainduta, eta Txanogorritxo ipuin ezagunaren inguruan eraikitako obra. Jakina, paratestuek ez dute informazio guztia ematen (zerbait utzi behar da irakurleak bere kasa aurki dezan) eta horrela, Genuaren proposamenean barneratuz eta ama-semearen arteko istoriotik abiatuta, Txanogorritxoren ipuinaren bertsio berri bat aurkitu ahalko dugu.

“Udazkeneko arratsalde euritsu bat zen; Xabi eta bere ama egongelan zeuden. Xabi, asperturik, kamioi batekin jolasten ari zen, eta ama liburu bat irakurtzen.” (9. or.). Honela hasten da liburua, etxeko giro hori deskribatuz, eta ondoren ama-semearen arteko elkarrizketari ekiten dio egileak. Amak liburu bat irakurtzeko proposatuko dio Xabiri, baina honen erantzuna oso garbia da: “(Liburuak) ez du ezertarako balio (...) Liburuak gezurrez beteta daude” (9. or.). Ideia –hasieran harrigarri samar- horretatik abiatuta, fikziozko liburuen kontrako alegatua egiten omen du egileak, “Ipuinak dira okerrenak (...) Ipuin bat irakurri ondoren ez zara erdiaz ere jabetzen”. (10. or.). Ama-semearen arteko ideia trukaketa izango dugu, eta Xabik, bere ideiak indartzeko, amak proposaturiko Txanogorritxo ipuinaren inguruan dauzkan zalantzak plazaratzen ditu... harik eta azken galdera egin arte: Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?. Amak, orduan, Xabiren galderez gogaiturik, berak ikertzeko esaten dio, eta horretarako ipuineko protagonistak ekarriko ditu eskenatokira. Amona, Txanogorritxo, otsoa eta ehiztariak gain basoko animaliek eta musika tresnek ere parte hartuko dute antzezlan bitxian.

Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona? Obra hau nahiko erraz antzez daiteke; eskenatoki aldaketarik gabekoa, pertsonaia kopuru txikia eta ongi definitua, elkarrizketen eta argumentuaren sinpletasuna, hauek guztiak antzezpena errazten duten elementuak baitira. Genuak, gainera, ez du denbora jauzirik ez toki aldaketa handirik erabili Xabik bere ikerketa gauzatzen duen obra honetan. Badira, bestalde, elementu errepikakorrak (rap moduan egiten duen kantua, esaterako) irakurle/ikusleak argumentua jarrai dezan, eta jolas literarioak –agian haurrek harrapatuko ez dituztenak, baina irakurle edo ikusle helduak bai-, *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* liburuan bezala agertzen den untxia (24. or.), edo metaliteratura jolasak amonak Xabiri esaten dion “zu ez zara ipuin honetakoa” (38. or.), esaterako, edo amaieran aldean, amak dioenean “Ipuin honek ondo bukatu behar du” (42. or.).

“Antzoki txikia” bildumako 6. liburu honek, bestalde, izenburutik bertatik argitzen digu zein den obra honetako hipotestua; hots, aldatu den jatorrizko testua, Grimm anaien Txanogorritxo ipuina, eta bertsio ezagunetik abiatuta, Xabi detektibeak beste mundu berri bat erakutsiko digu, hirugarren adinekoena, aiton eta amonen mundua. Izan ere, Txanogorritxoren amona pozik bizi da, baina gainerako amonak, nola bizi dira? Zein da hauen ikara handiena? Beldurrik izugarriena? Bakardadea. “Orduan amona... zeri diozu beldur??” Txano-ren galderari hitz bakarrez ematen dio erantzuna amonak: “Bakardadeari!” (39. or.).

Sarritan gertatzen den bezala, herri ipuin bat oinarri izanik ipuin berri bat eskaini ohi zaigu, berria, gaurko egoerak eta arazoak kontuan izanik... eta, gainera, transtestualitate

honek ematen duen aukera baliatuz, umore kutsua izanik. Ez da azken hau Txanogorritxoren amonari buruzko antzez lan honen kasua, baina aitortu behar da Enkarni Genuak gustura irakurtzen den (bai eta Jon Zabaletaren irudiek bizitasun handia eman ere) eta erraz antzez daitekeen obra eskaini digula oraingo honetan.

Xabier Etxaniz Erle (2007-02-13an idatzia)